

Miaxiria

aranoko aldizkaria • 2013ko
urtarrila

Atzo hala,
gaur hola...

Armarriya, mugarri zahar bat baino gehiago
Kanpai hotsak - Arano, iruditari - **Bengoetxeatarrak**
Arano: herri txiki, handi, eta berezia - **Ahotsak**
Nora noa? Eskozia - **Eta gehiago...**

**zenbaki
honetan**

Gurekin harremanetan jartzeko:
laga@iparmank.org

Diseinu eta maketazioa:
astidiseinua.com

Testuak:

Jose Iñazio Salaberria,
Ainhoa Ansa, Iñaki Egurza,
Xabier Legarreta, Arantxa
Ansa, Maider Ansa, Josu
Sarobe, Imanol Egues,
Pino Vicedo, Oskar Gascon,
Lourdes Legarreta

Argazkiak:

Iñaki Egurza, Ainhoa Ansa,
Josu Sarobe, Oskar Gascon,
Lourdes Legarreta, Bixente
Elorza, Maider Ansa,
www.ahotsak.com, artxiboa

**Aurkezpena**

3

**Armarriya, mugarri
zahar bat baino gehiago**

4-5

**Ahotsak**

6-8

**Bertsoak**

9

**Kanpai hotsak**

10-11

**"San Roke" Elkarte**

12

**Arano, iruditan**

13-15

**Arano: herri txiki,
handi, eta berezia**

16-18

**Umeek esanak**

19

**Nora noa? Eskozia**

20-21

**Bengoetxeatarrak**

22-23

**Kontu-Kontari**
Bizitzaren bi paretak

24

**Mendi ibilaldia**
Unamuno-Leuneta eta Azketa
mendiak, Aranotik abiatuta

25

**Errezetak**
Bakailoa pil-pilean eta gazta tarta

26

**Denbora-pasak**

27

**Gure bazterrak**

28



Atzo hala, gaur hola...



Hementxe duzu Miaxiriaren bigarren alea, irakurle. 2010ean hasitako lanari segida emanez, oraingoan ere hainbat lagun eta herritar aritu gara lanean aldizkari hau osatzeko. Herri txikia da Arano, baina baita herri bizia ere. Makina bat kontu eta istori, irudi eta soinu badira bertan, eta guk horietako batzuk ekarri ditugu hona.

Aldizkaria osatzeko garaian, alde bate-tik, atzera begiratu nahi izan dugu; iragane-ko kanpai soinuak entzun ditugu, eta baita joandakoen ahotsak ere, kontu-kontari. Txuri-beltzeko herria eta oharkabeen pasa-

tzen zaigun armarria ere bistaratu ditugu. Aranoren historia eta aranoarren istoriak biltzen saiatu gara; izan ere, herri baten iragan-gorde eta, gorde bakarra ez, gozatu beharreko altxorra dela uste dugu.

Bestetik, baina, dena ez da atzerako begirada, eta egungo aranoarrek ere badute euren tarte aurtengo Miaxirian. Herritar batek mendi ibilaldi eder askoa proposatu digu, beste batek uso zain dagoela bertsoan egin digu; baten batek sukaldeko epelera gonbidatu gaitu, eta bada munduan zehar ibili ondoren hango kontuen berri eman digunik ere. Bakoitza beretik

aritu da, duen onena emanaz, aldizkari hau osatzeko.

Ginenak, garenak... eta zer esan, izango direnei buruz? Herri txikien etorkizuna bertako gazteak dira, eta ale honetan Arano-ko txikiak jarri ditugu egungo eta etorkizuneko Aranoz hizketan. Euren iritziak, nahiak eta ametsak kontatu dizkigute; ea zer dioten.

Horrelaxe, herritar, ez gara gehiegi luzatuko, honezkero aldizkaria irakurtzeko irrikaz egongo zara eta. Gogoz eta ilusioz lan egin dugu, eta emaitza zure gustukoa izatea espero dugu. Besterik gabe, goza ezazu!

Armarriya, mugarri zahar bat baino gehiago

Urtean zehar ospakizun franko ospatzen ari gara Nafarroan, gure lurraldean, konkistaren 500. urteurrena dela medio. Hau dela eta, garai hartako aztarna bat badago gure herrian, Aranon; orduko Goizuetako barrutia edo auzunea zelarik, gogora dezagun 1630. urtean Aranok herri izendapena lortu zuela. Gure Euskal Estatu zaharreko ikur deigarri hau, herriko eliza atzealdeko atari gainean dago eta harritzko mugarri bat da. Nafar lurraldeko antzinako armarri polita. Atentzioa ematekoa da egunero ikusten eta bisitatzen dugula, baina herriko agintariei (alkate anderea, apaiza, herriko kronista...) aipamena egin nienean edo galdetzeraz joan nintzaientean axola gutxi adierazi zidaten, zur eta lur utziaz, gainerik hirutako batek erranik: "mugarri txar bat duk, mutiko!". Guztiz bestelakoa izan da kanpoko jendearen jarrera; Jimeno Jurio Nafarroako historialari handiak behin esan zuen herriko ondarerik zahar eta preziatuena hauxe zela. Nafarroako gortearen eta honen armarraren ikerketan lan egiten duen Donostiako aditu batek berdintsu. Eta azkenik, orain dela zortzi bat urte laino artetik azaldu-tako euskaldun arrunt batek hizketa hau egin zidan: *"maite dezute zuben lurraldia"*, *"bai bertakoak gera eta"*- erantzun nion modu apalean, eta aurrera pixka bat eginda despeditu zen esanez: *"bai, danak naparrak gaituk, ayo!"*. Kanpotarren adierazpen hauek bultzatu naute lau lerro xume hauexek ipintzera.

Hitzetik hortzera dabilkigun gaia da, gorago nioen bezala, Nafarroako konkistaren 500. urteurrena. Foru Aldundiaren eta goiko agintarien aldetik, Gaztelarekin "elkartze baketsua" (anexioa) izan zela sinestarazi nahi digute. Eta, bestetik, herri xehea benetako bertsioa ematen ari zaigu. Datu jakingarri batzuekin, gure Estatu Zaharreko suntsipena, konkista bortitza eta odoltsua izan zela bere gudate eta guzti argi eta garbi azaleratu dute. Garai zail honetan kokatzen dut mugarri honen eraikuntza, langintza honetan iaioa den batek zehaztu zidan bezala, 1500-1600 bitartean (XVI. mendean) egin da.




Herriak jakin dezan, denbora haietan hemengo gizon-emakumeak goizuetar jatorrak ziren, eta Arano Goizuetako parte bat besterik ez zen, Gipuzkoa eskualdearekin muga egiten zuena; honetatik datorkio mugarriari jatorria. Orain dela 500 urte,

inguru honi *"gaizkileen muga"* (frontera de los maleantes) deitzen zitzaion. Muga, sarri borroketan murgilduta suertatzen zen herria. Honen harira, Goizuetako artxiboan ere topatu dute idazki bat erdara garbian. Hernaniarrekin zituzten



ika-mikez mintzo da eta hizki handitan *"la guerra que Navarra tenía con Castilla"* ageri da. Aipatzekoa da, Gipuzkoako azken baserriak "Naparralde" duela izena, ordukoa ote? Pixka bat lehenago idazki bat badago Erriberrin (Olite), 1404-X-8 Nafarroako Leonor erreginak izenpetua. Bertan irakur daiteke, delako erreginak, dirua eman zuela Aranoko San Martin eliza konpontzeko eta orduko herritarrei zerga ordaintzea barkatu zien, muga liskartsu horretan bizi zirelako eta eliza erabat suntsitua zutelako.

Nire ustez, geroxeago berriz eraiki zuten tenplua eta gaur egungo arku eta armarría erantsi egingo zizkioten. Esan dudan gisan, 1500-1600 urteetan gerta zitekeen; orduantxe nahaste-borraste ugari gertatzen ari ziren euskaldun ororen sorlekuan, erregetzan Albreteko Enrike II.a (1503-1555) zegoelarik. Errege honek (izengoitiz zangotzarra) Noaingo borroka entzutetsua galdu zuen, lurralde osoaren batasuna lortu nahian zebilela. Honen alabak, Albreteko Juana (1528-1572) Nafarroako erregina euskaltzaleak, J. Leizarraga, euskal idazle handiari, Biblia sonatua idazteko agindu zion, *"Jesus Christ gure launaren testamentu berria"* (1571). Liburu honetako aurreneko orrialdean ikus daitezke erregetza honen armarría, batetik, eta lurraldeari dagokiona, bestetik. Azken honek antz izugarria du herriko kalean dagoenarekin. Kateak borobilak dauzka



(zaharrek dituzten tankerara); goiko koroa irekia eta perlatua (erreinuaren ezau-garri); eta antzinatek hartutako harrizko arku gotikoa, seguruena aurretik zegoen eraikuntzatik aprobetxatua. Horrelako altxorrik nekez aurkituko dugu Aranon, eta tamalez nahiko kaltetua dago, erasoz eraso urteen joan etorriarekin. Bestetik, makina bat lekutatik eraso diote atari eder honi, kaleari hormigoia bota ziotenean hor ziren eskailera dotore haiek deuseztuz eta haien partez pareta itsusi eta arriskutsua jarriaz. Azkeneko "petatxoa" elizako begogailuaren txabola izan da, eta horrekin ia estali dute geure ikurrik esanguratsuen. Beti bezala gure kondaira txikia tapatzen; handi-mandiak, ohi den lege, dirua eta ahalmena amets.

Eskerrak bestelako berriak ere badirela, eta bostehun urte ondoren armarríak xutik irauten duela, beti denon aurrean lotsarik

gabe agerkai. Honen eskutik, euskara gure hizkuntza maitagarria, alderdi hauetan osasuntsu gordetzen duguna. Istoriotxo hau bukatzeko, esan, Ibero (Goizuetan), aurtun Uztailaren 11n, Gaztelako guda taldeak (tropak) sartu zirela gogoratzeko goizuetar zahar eta gazte prestu batzuk elkartu zirela. Guk, Martzenea etxean, Nafarroako bandera ipini genuen krespoi beltzarekin gauza bera oroitarazteko herrikideei. Ansa ahizpek, herriko alkate eta zinegotziek, gure Nafarroari kopla batzuk eskaini zizkioten urteurren honen oroimenez. Iruñean ere gero eta ozenago aditzen dugu San Ferminetan goizero entzierro aurretik kantua euskaraz *"entzun arren San Fermin..."*. "Haien ametsa (nafar, gipuzkoar, arabar, bizkaitar, zuberotar eta lapurtar) gurea da" lelopean agurtzen zaituztet, eta Nafarroa eta euskara "bizirik" direla ez ahantzi. ● **Jose Iñazio Salaberria**

Ahotsak

**Erramun Huici.****Roke Ansa.**

Oharkabeen, askotan batere espero gabe, egun batetik bestera, maite ditugun ahotsak isildu egiten zaizkigu. "Halabeharrez" esango du norbaitek, "inor ez dago hemen betirako!". Beste nor edo nork "bizitzaren legea" gaineratuko dio aurrekoak esandakoari... baina isildu den ahots hori betirako galdu dugula sentituko dugu minez.

Baina joan denak emandako arrazoi eta gomendioak, herri txiki hauetako jakintza erakutsiz hain burutsuki emandako ikaspenak inondik ere, ahoz aho, belarri belarri, gure artean erabat ahaztu gabe aieratzen ditugu bizi garen artean. Batzuetan anekdota moduan gelditzen dira, beste batzuetan herri istorio izatera ere pasako dira... agian ez dira liburuetan agertuko baina guretzat, herriarentzat, gure historiaren maindirea harilkatzeko ezinbestekoak bihurtzen dira ahots hauek.

Denok ditugu belarrietan, buruan, bihotzean... etxetik joandakoen ahotsak gordeta. Gure altxorra dira, eta bizitzak jartzen dizkigun aukera eta oztipoen aurrean lagundu ere egiten digute beren modura. Entzuten jakin behar...!

Guk, zorionez, herritar batzuen ahotsak jasota ditugu. Gure guraso eta aiton-amonen gaztetako bizipenak eta herriko hizkera jasotzeko helburuarekin herrian grabaketa batzuk egin ziren duela bizpahiru urte. Herriko ondarearen bilketa hori bultzatu zuten proiektuak, bat Euskal Herriko Ahotsak izenekoa eta bestea Eusko-kultur-ek eta Nafarroako Unibertsitateak elkarlanean egindakoa izan dira.

Hemen esan beharra dago, baina, txanponak beste aldea ere baduela, eta arrazoi

ezberdinak tarteko, dagoeneko gure artean falta diren hainbeste ahots aberats grabatzera ez ginela iritsi. Bueltarik ez duen datua da, baina behin baino gehiagotan haietaz gogoratzea eramango gaituena.

Hemen jarriko ditugun hitzak grabaketa horietan bildutakoak dira, eta dagoeneko gure artean ez dauden bi lagunetak:

ROKE ANSA

(Arano, 1922-2010)

Suro auzoko Maisueneke Bordan jaio zen. Bederatzi senide izan ziren eta denek etxeko lanetan ederki ikasi behar izan zuten. Zazpi-zortzi urte zituenerako, anaiak txandatzat, herriaren beste muturrean dagoen Enazti baserrira joaten ziren hango izebari laguntzera (ama bertakoa zen eta aita, berri, Maisueneke Bordakoa, biak aranoarrak). Bertan lo egiten zuten eta eskolan nahi baino gutxiago ibili ziren, ondorioz. Eskolan ibili zen pixka, Suron Martzeneako Bordan ibili zen, eta herrian ere bai. Kontzejuko ganbaran ere eskola izaten zela gogoratzen zuen. Herriko okindegian ofizioa ikasten eta laguntzen ibili zen bi urtez, eta hamalau urterako Mairtenean ere bai, morroi. Basoan ere ibili zen, baina azken urteetan bere etxeko sotoan izan zuen dendagatik izan zen ezaguna Roke. Aranon bizi izan zen beti.

ERRAMUN HUICI

(Arano, 1930- Ereñozu, 2011)

Aranoko Enazti baserrian jaio zen. Aita zuen baserri horretakoa eta ama Aranoko Beheko Herriko Mairteneakoa. Sei senide izan ziren eta baserrian ahal zuten lur guztia artoa ereiteko erabiltzen zuten.

Aitak beheko zentrolean lan egiten zuen eta bera ere ibili zen han bi urtean. Gero Hernaniko paper fabrian lan egin zuen baina ardiekin zuen afizioa beti mantenduz. Bertso zaharrak kantatzeko ere afizio handia izan zuen beti. Hogeita hemezortzi urte zituela Ereñozura joan zen bizitzera eta geroztik han bizi izan zen.

Bizibidea eta txikitako lan eta kontuak

Erramun: *"Enaztin ahal zen guziya pata ta artua itten zen. Malkarra ere ederki aprobetxatzen zen biño ahal zen guziya zelaia ibiltzen zen!"*

Roke: *"Itxeko lanatan? Jesus! Gu seitun hasi ginan! Gurasuak aina itten du ume ttikikin eozin gaztek! Gurasuak ez dia beti alletzen! Ordun ez biñipin!"*

Brua ttiki batzuk jantzi ta hantxe bialtzen zittuen ttikik arrastaka!

Lurra lantzeaz ari ginela: *"Girua ez baitu beti denan gustora itten ta... askotan zaparrada bat o beste faña ta, garaiak eta... in bihar ta... Behin lurre sartzen baze bihar ez den geraian, gero lur hura ez da nolanahi gozatzen!"*

Eskola

Roke: *Attak ez tortzia nahio izaten zun noski ta amak tortzia ta... Guk Kontsejun izautu ginun eskola, Kontsejun ta, seuru ez no biño ganbaran e goian ibili izandu ote ginan... biño seuru ez no."*

Eliza

Erramun: *"Luixtarak... baruik jua bihar honbeste bidian! Epiñarkuk mintxuriya iten'e tokatu izan ziala aittu izandu nun!"*

Han esperun eon bihar gañe! Meza biño ordu bete lehenon jua bihar izaten zen! Ez zen libre ura eatia're!"

Erramun: "meza kantatzen bastante ongi jarri re in ginuzten! Mordoska eamaten zuen da neskak ta mutilak da... biño guk jostaka ibili nahi! korun kirie... han aitzen ginan! Bai, denak elkar hartuezkio moldatu itten da!"

Roke: Guk dotrina itxian ta ahal zen lekun ta ahal zen bezela ikasten ginun! Biño gue amak nearra re in zula uste ut! Guk dotrina ikasi ginun denbun kanbiatu in zuen! Ta dena berriz eakutsi bihar! Ez zen broma dena jakittia eh!



San Miel mendiz etortzen zen.

Jostaketak

Erramun: "Pelotan asko aitzen ginan! Frontoin ez zen tokiik izaten ta txanda esaten zitzain! 4 tanto batzuk ittian haik petrile seitze, ta bestiak beste 4 tanto in! Bukatzian beste batzuk hasiko zian...! Frontoia bakarria izaten zen da...! Ta geo Galdu fuera saten zitzain! Galdu fueran berriz denak hasi! Galtzen zuna fuera! Berriz atzeneko bi bakarrak gelditzen zian ta haik irabazi! Nonbatte denbua pasa in bihar biño han ibili nahio biñipin guk elizan errezun ai biño! (Barrez)".

Roke: Pelotan... ordun ze in bihar ginun ba? Ordun denak aitzen ginan pelotan! Ardieta juanta re majinat aldiz! Arre in da, Arreiko salan ta Txurdaingo Bordakun ta... Geo Txurdaingo Bordan buztin zulu izaten zen, buztin zulu, oain galdue izain da, biño goiko zea hartan buztina kentzeko holako kuadro bat (eskuak zabaldua)... batzuk han goian jarri guardin ta pilota txarran bat baldin baginun abaila ostra! Zulu harta! (barrez). Ta honozko erreikaino juaten baitzen poteka pukita eskapatu ezkie. Da han goian eoten ginan batzuk...

Erramunek dionez, ezker paretean "Enazti aldera ipurdiz dela" aritzen omen ziren eta zimiterioan ere bai, baina txikiak gelditzen omen ziren!

Roke: Pilotak, geo kozkortu ginanian, geok itten aitzen ginan. Biño ordun, zalain prankotan arbiyak in, arbiya zimelduta ez baita hausten nolanahi! Harrekin "luxian" saten giniyon, nonahi arraia in erdin ta oain tenisian bezela, abaila ostra! Ta arbiyak in igual! Ahal zen bezela! (parrez)

Bai, frontoia nola eoten zen... dena txikittua! Ta askotan hankahutsik ibili bihar

da hankapian ebakik inda igual... Ezkerreko pareta re zea eoten zen, lakatza ikerri! Pelota onantzako lekuk ez biñipin...

Ta aurrian e sare zaharran bat txikittua, bajua oain dena biño re ta... Jesus! Haundik ai zianian gu zai eoten ginan! Zakurra nola eoten da? Igual igual! Zea juateko, bila, ta noa jua zen beitu ta... Mekaben diez! Ordun saiatzen zen jendia bila!

Handiei lekua utzi behar izaten ote zitzaien galdetuta:

Bai bai... Guk abisua izaten ginun... Gu han ai al ginan? Jua da pelota ate boltsatik ta "diapai" jota han botzen ziu-ten aurre! Pelotan abisua diapai! Besteik ez ginun san biharrik izaten! Mekauen diez! Errespetua? Joe...

Gerra

Erramun: "Gerran deskantsuk erki kendu zittuen! Errotak biyek martxan izaten zittuen biño... nahiko lanak!"

"Aranon eendu zian soldaduk pixka batian... gizajuk han aitzen zian elkarrei besotik helduta pelotan erokeitan ta... tiro batzuk titzen zittuen Epiñarko kanbaioetik Pago alde biño han ez zen bertan gerraik izandu. Eun gutxi pasatu zittuen. Jostatzen ibili zian hemen biño geo goorra jokatu bihar!"

"Abionai 'brin brin' esaten ginin batei, sekulako irrintzia atetzen zun ta... Handik erretratuk atetzen zittuela saten zuen! Ez ginun guk holako bildurrik izandu!"

Herria eta zerbitzuak

Erramun: "Argiya dena ximple hoitakua izaten zen. Geo plantxak eo hasi zian ta itxez itxe erregistratzen e izautu nittun, iya

bazon plantxa zeaikan eo... Hairi gehio ko-bratzen zitzaien biño... Hale ezin! Ezin emanez geldittu zen (errota)".

Roke: "Ura eaman nahi izandu omen zuen! Hemen hiru amerikano ibiltzen zian! Aotzaundikua, Mitxelenekua ta Gaztatzenekua. Hiru amerikano, haik ben bastoia-kin da... Haik torri zian da haik juaten zian Suro alde. Asko matte izaten zuen Artzuloko iturrira jua da ura ean da hola ibiltzen zian! Da... haik jarri nahi izandu men zuen Suro ura! Bai... garai haitan eh! Ta ez dakit zein zen biño, reuniyua in da, aleia, geo re gastuk izaten zittula harrek eta... ta hala arreglatu ez ta utziya! Biño Artzulotikan desiatu baliyue biñipin beak ingo zitten haik!"

Roke: "Herriko telefonua Villan lehenbizikua nik izautu nuna... Ta geo Perurenak jarri zun!"

Roke: "Panaderiya Pako bizi den hortan izautu ginun lehenon. Gue ttiki denboran 3 kilokuak izaten zian! 6 libra... Redondoko hoitakuak, haundik! Olaskuakin, zeak, kozkorakin! Earrak bai! Panadero ona eendu zen hemen!"

Pena bakarra zuen Rokek, ogia egiten ez ziola berari asko erakutsi. Egurketan eta baratzeko lanetan morroi gisara pasatu zittuen pare bat urte baina ogia nola egiten zen ez zioten erakutsi nonbait.

Montebean drogeria eduki zuen panaderoaren anaien batek Roke gogoratzen zenez. "Harek eukitzen zittun kulunpiyuk eta hor!". Tximixene Koperatiba bukatu zenean ireki omen zen. Juanikene izan omen zen berak, Rokek, aurrena ixten ezagutu zuen taberna. Zapatari ez omen zuen ezagutu, eta Kontsejun, aldiz, be-



ti ezagutu omen zuen taberna. Olason jarri zutenerako berak urte batzuk bazituela zioen.

"Bolatokiya izaten zen! Juanikeneko gaikaldian izaten zen! Oain... ze kobratzen zun ta nola ibiltzen zen? Biño bola ta... akortzen naz zaharrak nola aitzen zian! Gu oaindik ordun gazte xamarrek baiginan! Gazte xamarrek ginala baitzian hoik! Nik, hola... baton batek emanda tira hola igual bai biño, ni e naz aittu zerian... gue edadekek ez izan aittu han jokutzen."

Errota

Erramun: Errota soziedadean izaten zen. Hogeita hamabost bazkide edo omen ziren eta haiek ere tartean. Errotak itxi ziren behe aldean baina Aranokoa ez. Idazkariak lortu ote zuen errota irekia gelditzea... Galdera airean utzi zuen.

"Jornal ttikia izaten zen biño beti nor o nor sartzen zen lane! Soziyuk, aurrena herriya zela ta estu hartzen zittuen langiliak... Kanpotik jendia tortzen zen biño... Bakizu! Hemen gauza guzin okasiyua belexe sortzen da!"

Roke: *"Beheko errota ta goikua erki aprobeztatzen zian ordun! Hako Gipuzkoatikan e denak honaa tortzen zian, inon e etzaukiten posibilitadeik gañe-kun da..."*

Jai eta denbora pasak

Punttuan, musean... kartetan ibiltzen ziren nahiko txikiak zirela ere, eta soinuua zenean dantzari!

Roke: tabernetan jokoan ariko baziren, Koperatiban edo Petranen ere, ardo botila atera behar izaten zuten gazteek, zaharrek jokoan aritzeko baimena emango bazien! *"Ardo botila ate al duk!"* Gogor esaten omen zien... eta behin ateratzean, libre izaten omen zuten jokoan haiekin aritzea.

"Baltzian ibiltzia munduarritzko pekatua zen! Lotxabentxuanak o pixkat ibiltzen zian, bai! Biño... itxiatan e ez zuen nahi izaten! Apeza haserretuko omen zela ta... Oain haserre eon biharko lueke gehienian!"

"Pazkotako musikarik gaztitan artian paatzen zian! Pagatu in bihar zenbana kostatzen zen! Biño karri in bihar da satia bakarra ez da aski! Organizatu in bihar da! Biño nolaatte moldatzen ginan! Organizatzen zunak enkargatzen zunakin konforme ibiltzen ginan! Oain ez likek ezta debalde manda re inork e asmatuko!"

Roke: *Ttun ttuna saten giniyon lehenbizi! Gue osaba zen hura ta beste bat Heranitik edo etorriya. Txistua ta danborra, danborra ta txistua. Ta gio soinu jotzailiak kartzen hasi zen herriya, biño gutxi zela ta guk bat (gaztiak) ta bestia herriyak patzen ginun..."*

Festetara erroskila saltzera "Beltza" deitzen zioten urrietar bat etortzen zela gogoan zuen. Kinkillero bat ere bai, eta azkenik, erretratista batetaz gogoratuz sekulako algarak egin zituen kameraren aurrean. Noski, hark manta batekin burua tapatu eta botoiari zapaltzean sekulako argia egiten zuela eta denak itsututa hantxe egoten zirela haren ondoan...

Urte zahar gauean etxez etxe kopla kantari:

Roke: *ordun argiik gabe re... Jesus! Jarrrik eoten ginan bai erki! Paolik ez behintzat ta... linternik e etzen izango...*

*Zapata txuri paperez
euri denean baterez
nagusi jauna esan zaiguzu
hasiko geran edo ez!*

*Dios te salbe, ongi etorri
gabon Jainkoak diela*

*egiarekin kunpli dezagun
urte zaharren despeida/urte berriyan
sarrera.*

Gauean gaupasa egiten zuten herriko baserrietan kantatzera joateko. Batzuetan aterik ez irekitzea tokatu izan zitzairen aurrekoei baina berak ez zuen gogoan. Zaharrei entzundako kopla hau jarraian:

*Ematekotan emazu
bestela ezetz esazu
Mari Anttoni deitzen dan hori
alu bizartzu zera zu!*

Roke: **"San Miel"** mendiz tortzen zen ta han goian azaltzen zenian hasten zien kanpana jotzen! Joe... Bai, ordun ilusio earra eukitzen ginun... Amak komerik! Zerbatte jantzi bihar da... hainbesteko familik ta... gaixuk!"

Lehen eta orain...

Erramun: *"Garai hartan ibiltze ohittuk gaunden! Eliza ta juateko're biaje erra izaten zen! Ordun ibiltzai ez zitzaion oain ainako inportantziik ematen! Bi biaje jaitan'e ta pozik!"*

Zomorrotako afariar ari dela... *"Oain-go aldiin jende asko zen Aranon!"*

Roke: Errespetua orain arte mantendu dela esanez bukatu zuen elkarrizketa. Orain maldizioak erruz, elizara inor ez... *"Ez bada gazteik hiltzen, gaztia re zahartuko da noizbatt! Ta berai ze heldu zain kontuk ate bihattu pertsonak! Bestei burla ittia errexa da ikiarri..."*

EUNTZINGO HARRIYA

Roke: *harri hura hemen elitzake sartuko! Haudio da, askoze haundigua da! Biño harri zar bat ta... Hura do, zea, holako harri (mahai gainean bastoia jarriz) bat o besten gañian! Azpitik ta ikusten dela ta! Harri hura, zu! Mekauen diez! Ta ni harrituta... hura amilduko balitz... handika... hura errekan geldittuko litzake! Aboño alde heldu al da? Hara! Ta beste alde... hara! Harrek eluke ez arbolik eta ez kruxtoik errespetatuko! Ezer ez!*

Bat da han kaskun libre hala dona! Ta haundiya! Ni enaz berriz, hara berriz juango noski, biño ikusgarriya da hura don bezela eotia... Hoi da marka! Zintzilik bezela...bai bai... gura 2-3 harri puntan gañian eon bihar dula satia re... jo... hala do bai! ● Ainhoa Ansa

Errekalkoko txabaletik



Epelaren eskian
hotzari iheska
ari gabe bidia
nondik den galdezka
Urriak pizten digu
poza eta kezka
azainak kontatuaz
mendian deus ez ta
heldu da berriz ere
haiziaren festa

1

Mila metrora zertan
gaude itxoiten gu
mendirako joera
ez badu mantendu
orain itsasaldera
gehiago jotzen du
hobe genuke askoz
lanroberra kendu
ta txalupa txiki bat
hartuko bagendu

5

Egunak nahi bezela
ez badoaz pena
baina garai politta
dugu udazkena
mendian gauza asko
egin littezkena
baina zera da inoiz
berdina ez dena
balorazioa ta
aurreikuspena

9

Motxila txukun txukun
prestatu bezperan
ez dedila faltatu
zer jan ta zer edan
harrapatzeko grina
pizten da guregan
hauxe da panorama
urri bukaeran
ehiza lurrian eta
ehiztaria hegan

2

Bixtan baldin badira
txistu ttikia joz
erne jartzeko modu
onena delakoz
le(he)n zebiltzan lurretik
gertuago askoz
orain Frantzian ase
ohi dituzte artoz
nahikua janda ere
altuegi datoz

6

Ehiza lehengoa inoiz
izango ote da
nahiz ta uste bezela
gauzak ez atera
berriz ere mendira
itzuliko gera
harek pizten baitigu
amesteko aukera
ta egia zeneko
ilusio bera

10

Prestatuta juatia
komeni da eta
talki ta kataleju
kotoko tarjeta
za(ha)r ta berri bostehun bat
kartutxo deneta
bokadilo eder bat
zatua beteta
eta badaezpada
ere eskopeta

3

Hau da etxetik gertu
daukagun lujua
baina ikasi dute
euren maneju
mirariz etortzen da
banda bat bajua
inoizik eta behin bat
lurrera dijua
sei postutatik tira
eta seirek jua

7

Iparraldeko lurrak
utzirik atzian
naturak aginduta
behin abiatzian
juxtu sartu aurretik
urtaro hotzian
udazken andereak
tutua jotzian
inoiz ez abenduan
edo ilbeltzian

4

Itsasotik ez bada
gauzez dijoazte
egunez falta zaien
pakearen eske
hegan jakinagatik
ez baitaude aske
herriz herri tiroka
hartu bagintuzte
guk ere ikasiko
genuen hainbeste

8



Kanpai hotsak



Oraindik ere, Aranoko kanpaiak erloju lana egiten dute egunero eta orduro. Baina, oraingo informazio sare aurreraturik ez zenean, ez duela urte asko, beste eginkizun batzuk zituzten Aranoko kanpaiak. Informazio ugari eskaintzen zuten; norbait hila zela, suterren bat gertatzen ari zela, etxeratzeko ordua zela, jaikitzea... Hemen, ezkilekin egiten ziren joaldi desberdinak agertzen saiatuko gara, zorionez Anttonio "Exkerra"-k gogoan eduki eta aurrean bertan herriko gazte batzuei erakusten ibili den joaldiak, hain zuzen.

1. Argi-ezkila:

Eguzkia ateratzean, oilarraren kukurrukuarekin batera Aranoko kanpandorretik argi-ezkila entzuten zen. 6ak edo 7ak

izango ziren, gehiago ez. 20 kanpai-hots, dan-dan-dan... jaikitze ordua!

2. Angelusa:

Lurra landuz bizi da oraindik ere aranoar franko. Zerura begiratzen du, egunak zer dakarren ikusteko eta bere lanak antolatzeko. Orain ez da hainbeste erreztatzen, baina garai batean 12:00etako kanpaiak entzun eta zerura begiratzen zen angelusa errezzatzeko. Jainkoari uzta emateko eskatu, seme-alabak zaintzeko, osasuna eskaintzeko... 12 kanpai-hotsak hamaika eskari bihurtzen ziren eguerdi angelusaren garaian.

3. Ama-ezkila:

Argi-ezkila eguzkia ateratzean entzuten zen eta eguzkia gordetzean ama-ezkila.

15 kanpai-hotsek erretiratzeko ordua adierazten zuten jostari, bi kanpaia txandatzuz bizi-bizi.

Hurrengo egunean berriro argi-ezkila esnatuko zituen eta etxeratzeko garaia zen.

4. Keda:

Ama-ezkila entzun ondoren azken lanak eta denbora-pasak sarri luzatu egiten ziren. Ordu bete igaro ondoren, oraingo honek ez zuen barkatzen. 20 kanpai-hots mantso hauek "keda" markatzen zuten. Erabat iluntzen zuenean, etxera arrimatu eta behingoz oheratzeko garaia.

5. Jai bezperetakoak:

Egutegirik ez etxean. Uztak eta naturak markatzen zituen urtaroak, eguzkiak

egunak, eta asteak kanpaiek erakusten zituzten. Bi kanpaiak txandaturaz entzundakoan larunbata zela jakiten zen edo jaiegun bereziren baten bezpera zela, bestela. Hurrengo eguna jaia zela, behintzat, eta umeek eguna jolasten pasako zutela eta helduek deskantsurako hartuko zutela. Bi kanpaien joaldi bizkorra entzutean poz ederra bai!

6. Jaiean, meza aurretik:

Lehen esan dugu jaia deskantsurako izaten zela, baina baserriak ez du ulertzen astegunez. Mezatar joatea izaten zen jaietako berezitasun bakarretakoa eta kanpaiek horren abisua ere ematen zuten, nola ez. Meza baino ordu bete lehenago bi kanpaiak entzuten ziren nahasian joka. Elizarako prestatzen hasteko abisua izaten zen gizon-emakume askorentzat. Mezara sartu aurreko unean berriz, sakristiatik jotzen zuten beste kanpai bat. Hau apaizak edo monagiak jotzen zuten.

7. Egunerokoak ez zirenak:


Udaran sarritan botatzen du harria. Aranoarrak lurra emandakotik bizi izaten zirenez, arriskua agertzen zenerako apaizak orazioa egiten zuen, konjuroa deitzen zitzaion. Harriaren beldurrez, apaiza konjuroa egiten, kanpaia bakarren soinua larri joka eta baserritarrak arrosarioa errezatzen sukalde txokoan sartuta. Erramu hostoak sutan errez eta arrosarioa esanaz behin Goizuetatik heldu zen ekaitz bati Aranoko lurretan sartu gabe eutsi ahal izan omen zitzaion.

Noiz edo noiz tokatu izan da sua ere belaunetik gora. Halakoetan bi kanpaiak azkar eta nahasian jotzen ziren abisu larria emateko herritarrei. Hori entzundakoan denak elkartzen ziren elizara sua non zen jakiteko eta laguntza eman ahal izateko.

Agoni kanpaiak, barruraino sartzen zen soinua ilun eta tristea. Norbait hiltzen zenean jotzen ziren agoni kanpaiak eta desberdinak izaten ziren gizona, emakumea edo haurra izan hildakoa. Hildakoa gizona zenean, kanpai larriarekin hasi eta bukatzen zen joaldia, mantso-mantso. Hildakoa emakumea zenean gauza bera, kanpai agudoarekin. Eta galera aingeru txikia zenean, berriz, bi kanpaiekin jotzen zen aldi berean eta, hain mantso



Antonio Exkerra.



Kanpai erritmoak, Arantxa Ansa idatzita.

izan beharrean, bizkorxeago. Hildako momentuan eta hileta aurretik errepikatzen ziren kanpai hauek. Kanpai hauek bereziki sarkorrak izaten ziren, herrian sumatzen zen tristura pisutsuago eginez.

San Migelen etorrera eta *Corpus Cristhiko* prozesioa egun handiak ziren Aranon. Kanpaiek ere hori adierazten zuten. Oso joaldi koloretsua eta alaia

jotzen zuten. Zerbait oso berezia gertatzeaz zegoela ematen zuen.

Hauek dira iazko San Martinetako erakustaldian eta aurtengo ikastaroan ikasitako joaldiak. Eskerrik asko Anttonio, jakintza hau ondorengoetara pasatzeko eman diguzun aukera paregabeagatik.

● Arantxa Ansa, Maider Ansa

"San Roke" Elkarte

Kontu zaharrak:

Garai hartan ohitura zen, asteburuetan mezatara joan eta gero, "Bar Frontón" plazako tabernan hamaiketako egin eta lagunekin mus partidak jokatzeko. Baina hura itxi zenean, nahiz eta herrian beste taberna batzuk egon, (Kon-tseju, Rokene eta Perurena) elkarte bat sortzeko gogo zegoen. Lagunak juntatu eta hamaiketakoak, bazkariak, afariak, mus partidak... momentu onak pasatzeko leku bat sortu nahi zen.

Pixkanaka hiru-lau bat juntatu eta hasi ziren mugitzen, bilera batzuk egin eta gero ikusi zen jende dezente zegoela prest. Udalarekin hitz egin eta honek garai bateko eskola izaten zen lokala, hutsa zegoenez, elkarte sortzeko utzi zuen.

Obra batzuk egin eta gero, 1974. urtean elkarte sortu zen 57 bazkiderekin. Geroztik gauza asko egin dira, obrak, handitzeak... eta pixkanaka gauzak hobetzen joan dira. Esan behar, garaiak aldatu direla eta 2000. urtean sartu zela lehenengo emakumea bazkide bezala; geroztik beste asko sartu dira eta gaur egun 68 bazkide daude denetara.



Elkarrizketa Pako Larreari

Pako sortzaileetako bat izan zen eta gaur egun zuzendaritzan dago.

Nola erabaki zen izena?

Hasiera batean "Asociación de Arano" bezala sortu zen elkarte, baina izen bat jarri behar zela eta, 1977an San Roke jarri genion, ez dakit seguru, baina pentsatzen dut ermitagatik jarriko genuela.

Denborak aldatu egin dira, nola nabaritu da elkarte?

Hau sortu zenean, jendea asteburuan bakarrik etortzen zen eta normalean nahiko jende edadetua izaten zen. Beti bazkaldu,

afaldu eta musean jokatzeko gogoak amorratzen, orduan ez genuen telebistarik.

Gaur egun, jende gazteagoa ikusten da eta egia esan, azken urteetan mugimendu dezente dago elkarte.

Zuzendaritzan urte pila bat eta gero, badirudi azkena dela?

Bai, txanda tokatzen da. Hasieran 10 urte pasa nituen eta azken hamabostak hemen daramazkit. Ona da jende berria pasatzea zuzendaritzatik ideia berriei.

Nolako esperientzia izan da zuretzat?

Esperientzia ona. Batez ere talde on batekin lan egitea, beti ilusio eta gogo handiz, gauzak ahal diren hobekien eginez. Gustura nago elkarte txukuna eta diru aldetik ongi gelditu delako.

Zer esango zenioke zuzendaritza berriari?

Gogo handi eta ilusioz hartzeko.

● Oskar Gascón

Arano, iruditan

Askotan, eguneroko presa eta zalapartak medio, oharkabeen joaten zaizkigu inguruak eskaintzen dizkigun forma, kolore, xehetasunak. Baina edertasuna begiradan dago, erreparatzen jakitean; horren erakusle, Bixente Elorza eta Maider Ansak osatutako irudi hauek.



Gue bidia. Hauxe da, biyotzetik herrira.




Pareta zarrak. Zarra ez da izandakua. Luzarun dena baizik!



Karnabal zomorrua. Tradiziyua etorkizune beira.



Udazkeneko loria. Aranoko altxoratan altxorrana!



Illunabarra. Arrats gorri, goiz euzki!



Erreginan belarritakuk. Oain dela bostehun urtekuk biharbaa...



Uzta. Zeru urdine arbatik gora!



Arano: herri txiki, handi, eta berezia

Herri txikia duzu Arano, biztanle kopuruari begiratzen badiozu. 130 biztanle inguru ditu. Makina bat herri dago Euskal Herrian gurea baino jendetsuagoa, gure ondokoak eta ingurukoak barne. Handia da, berriz, azalerari begiratu gero, 13,7 kilometro karratu baitauzka. Iruñerriko udalerri jendetsuak, esaterako, askoz txikiagoak dira (Barañain: 1,4 km²; Zizur Nagusia: 5,1 km²; Berriozar: 2,7 km²; Atarrabia: 1,1 km²; Burlata: 2,2 km²...). Hemen bizi garenok, eta hona etortzen den orok, badugu nahikoa espazio eta lurralde ibiltzeko eta arnasa hartzeko.

Eta berezia da, zalantzarik gabe, duen kokapenagatik. Izan ere, herriko kaskotik bertatik itsasoa ikusten uzten digun Nafarroako herri bakarra da. Ongi aski daki hori bertan bizi denak, baina harrigarri eta bitxi gertatzen zaio bisitatzen eta gure herria ezagutzen duenari.

Herria ezagutzeaz ari garela, horretan lagunduko diguten datu, jakingarri eta xehetasun batzuk bildu ditugu artikuluhonetan. Herriaren eta herritarren arima

aiseago harrapatuko dituzu aldizkari honetako beste atal batzuetan, baina hemen ikusiko dituzunek ere Arano hobekixeago ezagutzen lagunduko dizutelakoan gaude. Honatx, bada, zenbait jakingarri:

Herriaren izena:

Espero zitekeen moduan, herriaren izenaren esanahia argitzeko proposamen ezberdinak egin dira. Euskarazko arrano (hegatzia), haran (bailara) eta aran (fruitua) hitzekin lotu izan da. Mikel Belasko ikertzaileak Koldo Mitxelenaren hipotesiari eman zion sinesgarritasunik handiena. Horren arabera, Arano haran hitzarekin lotu beharko litzateke: haran + no, atzizki txikigarria. Alegia, "haran txikia" edo gisako zerbait izan liteke izen honen esanahia.

Kokapena:

Arano Nafarroako Ipar-mendebaldean dago kokatua, Goizueta eta Hernaniren arteko bide erdian. Urumea ibaia ez da herriaren erditik pasatzen, baina iparraldeko eta ekialdeko mugak markatzen ditu. 446

metroko altueran dago Arano, 13,7 kilometroko azalera dauka, eta bost udalerri ditu mugakide: Goizueta, Orereta, Donostia, Hernani eta Elduain.

Euskal Herriko hiribururik hurbilena Donostia da, Aranoitik 25 kilometrora baitago. Urrutixeago ditu Iruñea (78 km), Baiona (75 km), Donibane Garazi (109), Gasteiz (140 km), Bilbo (145), eta Maule da urrutien gelditzen zaiona (152 km).

Herritarrak:

126 biztanle bizi dira Aranon, sei auzotan banatuak: Goiko Herri, Beheko Herri, Suro, Latxe, Benta Berri eta Arranbide. Horietatik erditsua baserrian bizi da. 30 baserri inguru ditugu herrian, Beko Herri eta Suro auzoetan banatuta. Hainbat urtez herrian umerik jaio ez bazen ere, azken urte hauek emankorrak izan dira, eta gureratu dira kaleak alaitzen dizkiguten zenbait haur.

Garai batean, nolanahi ere, askoz handiagoa zen Aranoko biztanle kopurua. 1900. urtean, esate baterako, 430 per-



tsona bizi zen bertan. Ordur geroztik bilakaera beheranzkoa izan da, eta populazioa dezente murriztu da. Taula honetan ikus dezakegu bilakaera hori:

Haur horiek, eta oro har herritarren %90etik gora, euskaldunak dira. Eskolarik ez da bertan, eta ikasleak Goizuetako eskolara joaten dira egunero, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBHko lehendabiziko bi mailak osatu arte.

Herri txikia izan arren, industria handia izan du oraintsu arte Aranok. Izan ere, Aranoko lurretan zegoen garagardoa egiten zuen lantegi handia. Itxi da, ordea, eta lanik gabe utzi ditu hainbat herritar. Aranon bertan lana eskas izaki, egunero-egunero bertatik atera eta Goizueta nahiz Hernani edo Donostia aldera abiatzen dira aranoar gehienak lanera.

Ingurua:

Inguru menditsua da Aranokoa. Altu samar dago kokatuta, auzo herria duen Goizueta baino askoz ere altuago, konparaziora. Bertako mendiak dira, besteak beste, Arano (572 m), Errekalko (709 m) eta Leuneta (883).

Klima atlantiar epela dauka Aranok, eta urte osoan zehar sarritan izaten dira egun euriatsuak; 170 egun, hain zuzen ere, batez beste. Urik ez da falta hemen, beraz, eta, ondorioz, gure lurra bustitzen duten

1900	1910	1920	1930	1940	1950	1960	1970	1981	1991	2001	2006	2009
430	452	501	436	416	416	377	240	201	168	134	141	134

errekak ere ugari: Urumea, Arano, Latxe... Urteko batez besteko temperatura 12 eta 13 gradu artekoa da, eta prezipitazioak 1.500 eta 1.600 mm bitartekoak.

Haritz, pago eta gaztainondo asko dago, baita pinu lariziar asko ere, XIX. mendetik aurrera egindako birlandaketan ondorioz.

Historia:

Aranon, historiaurretik hasita, burdin aroko eta brontze aroko aztarna ugari dago mendietan barreiatua. Hilobiak badaude, jendea bertan biziko zela esan nahi du horrek, beraz, esan daiteke Arano-

ko mendietan aspaldidanik bizi izan dela jendea. Herria Goizuetaren menpe egon zen harik eta 1630. urte inguruan banandu ziren arte.

Herritar ospetsuak:

Aranon pilotari batzuk izan dira, gure historia hurbilean, herria munduan zehar ezagutarazi dutenak. Erremontean eta eskuz ere txapeldun handi izandakoak baditugu, hala nola Bengoetxea I eta II, Arano I, II eta III, Lucio Eskudero Oronoz... Gazteen artean ere pilotari ibili den herritar ugari dago, inguruko herrietan bezalaxe.

Herri kirol eta baserriko lanetan segalari eta garai bateko laiari taldeez gain, Aranon orain urte gutxira arte, artzain zakur lehiaketetan punta puntan ibili izan da Pedro Mari Ansa herritarra.

Kultura mailan, Manuel Huici bertsolaria ahaztu gabe, gaur egun, gazteen artean, bertsolari eta kantari aipagarriak baditugu; Xabier Legarreta "Arano" bertsolaria eta Maider Ansa kantaria, hain zuzen ere.

Ospakizunak:

Bertako festak edo ospakizunak ondoren kronologikoki zerrendatutakoak izaten dira:



- Neguan Iñauteriak edo Iñoteak
- Aste Santu inguruan Letariak
- Ekainaren 23an San Juan sua
- Uztailaren 25ean Santio Jaiak (herriko festa nagusia)
- Uztailaren 26an San Joakin eta Santa Ana eguna
- Abuztuaren 16an San Roke (erromeria)
- San Migelen etorrera
- Azaroaren 11 inguruan San Martin

Gastronomia:

Urtean behin, festetako programazioaren barnean, herriko produktuen azoka egiten da. Sagardoa egiten duten bost baserri daude oraindik eta gazta egiten duten beste hiru (bi baserritan biak egiten dituzte). Badago txakolina egiten duenik, ogia saltzen duenik eta ezia egiten duenik ere. Sukaldaritza ogibide duen herritarrik ere badugu. Azkenik, kontserbak eta baratzeak eta zuhaitzetako produktuak ekoizten eta biltzen dira ia etxe gehienetan. Herri nekazaria da Arano, bere inguruarekin errespetuz eta oreka bilatuz jokatzeko duena.

Artisautza:

Santio festetako azoka horretan herriko artisauek ere badute lekua. Xaboa, ukenduak, bitxiak, zeta, joskintza eta zeramika lantzen duten herritarrek hurbiltzen dira urtero beren lanak erakustera. Azken horrek herrian bertan du bere tailerra.

Ostatuak:

Lehen ostatu gehiago baziren ere, azken urteetan, arrazoi ezberdinengatik, beste taberna eta jatetxeak itxi eta herrian Kontseju taberna bakarrik gelditu da irekita. Kontseju Udaletxeak kudeatzen duen taberna da eta asteazkenetik igandera egoten da irekita. Imanolek eta Ainhoak gidatzen dute Kontseju eta lan horretan ia bost urte daramatzate.

Lotarako aukerak:

Bixargorri herri erdian kokatua dagoen nekazal etxea da. Etxe osoa alokatzen da bere sukaldearekin. Bi logela ditu eta 4-6 lagunek egin dezakete bertan lo. Barrutik berriro dago lehengo materialak erabiliz eta baserri tankerari eutsiz. Ekonomia eta lurteko sua pizteko aukera dauka, dekorazio atsegin eta goxoa... Baratza eta oilategia ditu atzeko aldean. Hauxe da harremanetarako bidea: bixargorriarano@hotmail.com / 671337136



Larriturri labadorea.

Paisaia kulturala eta naturala

- Larriturri: lehengo arropa garbitzeko guneetako bat da. Herrian bazeuden gehiago baina hau da egoera on samarrean mantentzen den bakarra.
- Errota: bi daude, goikoa eta behekoa, eta bien pareta zaharrek Latxe erreka zokoko landaretza itxian xarma berezkoa gordetzen dute. Haietara iristeko ibilbidea zoragarria da, erreka bazterretik eta "Lamiosin" deituriko putzutik pasatzen dena. Kontatzen da, garai batean Lamiosinen lamiak izaten omen zirela...
- San Martin parrokia XIX. mendeko eraikina da, jatorrizko Erdi Aroko elizaren hondakinen gainean eraiki zena. Gaur egungo egitura gurutze latindarreko oinarrituriko eraikina da, kanoi erdiko ganga (bobeda) estalduarekin. Azpimarratzekoak dira atzeko ateko Nafarroako armaria (Nafarroako erresumako armari zaharrenetako behar bada), errotarriarekin egindako aldarea eta lauki zuzen formako bataiarria. Irudien artean, besteak beste, aipagarria da XVI. mendeko Jon Donostiren egurrezkoa.
- San Roke ermita, auzolanean orain ez urte asko konpondutakoa eta herritik Oraune aldera pistaz abiatuta pago artean babestua agertzen dena.
- Juan Donosti ermita. Estalkirik gabe dago baina bertatik dauden bistak ikustekoak dira.
- Herriko plaza.
- Udaletxea plaza txiki batean dago, elizatik gertu. Lau solairuko eraikin zaharra da, antzinako eskolen ondoan dagoena.

Eraikinean, udal bulegoek gain, taberna eta etxebizitza bat daude. Ganbara, berri, balio anitzeko areto moduan erabiltzen da oraingoz beste deus antolatuta arte.

- Meazuloak eta karobiak
- Ibilbide megalitikoak. Adarratik Aranora bitartean multzo megalitiko ugari daude, kuartzita txuri ikusgarriak borobilean jarriak ageri direla. Brontze eta Burdin aroko multzoak dira eta oraindik katalogatu gabeko zenbait egon daitezkeela esaten da.
- GR zaharra eta bestelako ibilbideak markatu gabe ditugu. Aranotik alde guztietara hainbat ibilbide abiatzen da eta hauetako asko zirkuitu itxiak badira ere (abiatzen den lekura itzul daiteke beste nonahitik), inguruko herrietara joateko ibilbide aukerak asko dira.
- Pagadi zabalek, estartek, gurdi bideek, erreka zuloek eta harrizko pareta eta artzain bordeak paisaia ederra osatzen dute. Lainoak sarri gure mendietan zintzilikatzen badira ere, M. Laboa zenarekin hain sonatu egin zen kantu eder hark zioen moduan...

"maite ditut, maite, gure bazterrak lanbroak izkutatzen dizkidanean...
zer izkutatzen duten ez didanean
ikusten uzten
orduan hasten bainaiz izkutukoa
nire baitan sortzen diren
bazter miresgarriak ikusten!"

Umeek esanak



Azahara, 9 urte



Ander, 9 urte



Jokin, 9 urte



Unai, 8 urte



Eneritz, 7 urte



Naroa, 7 urte



Aiur, 5 urte



Aner, 5 urte



Intza, 6 urte



Iker, 7 urte



Haizea, 5 urte



Leire, 5 urte



Uxue, 4 urte



Iraia, 3 urte



Oier, 3 urte



Maddi, 2 urte



Naia, 9 urte

• Zer gustatzen zaizu gehien Aranotik?

Azahara: Ume alaiak daude. Suro da politena.

Haizea: Leirerekin jolastea eta Sorotxora joatea.

Iraia: Etxeak politak dira.

Oier: Frontoia eta karretera.

Naia: Pilotan jolastea.

• Aranotik gustatzen ez zaizuna, zer da?

Eneritz: Mutilak. Denak.

Naroa: Eskolara joatea autobusean.

Uxue: Karretera.

Naia: Mendian ibiltzea.

Aiur: Eguraldi txarra.

Aner: Ez jolastea.

Iker: Taberna.

Ander: Dena gustatzen zait.

• Zenbat jende bizi dira Aranon?

Iraiti: Hamabi.

Leire: Bat, bi, hiru...bi mila.

Haizea: Bi mila eta bat.

Iraia: Bat, bi, sei, lau... bi.

Aner: Bost.

Iker: Ehun eta hamabost.

Ander: Ehun eta hogeita sei.

Intza: Asko.

• Ba al dakizu zein den Aranoko alkatea?

Jokin: Iñigo.

Eneritz: Ainhoa.

Oihan: Jose Ramon... ez, Ainhoa.

Iraia: Nire aita.

Naia: Iñaki.

Aiur: Jabier "Potto".

Aner: Aita.

Iker: Xabier Legarreta.

Intza: Ainhoa Surokoa.

• Zu izango bazina Aranoko alkatea, zer egingo zenuke?

Azahara: Jostailu denda Suron.

Unai: Belarrezko lurra jarriko nuke frontoian, minik ez hartzeko.

Naroa: Juandonostin "Eurodisney" bat. Eta Labaderoan eskola berri bat.

Irene: Igerileku erraldoi bat, rokodromo bat eta txutxe denda bat.

Haizea: Hondartza bat frontoian.

Iraia: Dena garbitu eta tximeletaz bete.

Oier: "Warner" parkea eta ikastola berri bat.

Naia: Ardura jarri

Iker: Herria aberastu

Ander: Hipika bat

● Pño Vicedo

Nora noa? Eskozia

Nora noa? Galdera honekin esan dezaket hasi zela nire bidaia. Uda aldean ingelesez hitz egiten ikasi nahi nuela erabaki eta horretarako kanpora atera behar nuela jakinda, zein aukera nituen begira hasi nintzen. Bizitzari berari ere tarteka egiten diogun galdera da eta esperientzia berriak bizi eta agian erantzunen bat aurki nezakeen.

Modu ekonomiko batean, ahal bazen lan eginez, egitea zen nire helburua. Beraz, ordenagailu aurrean jarri eta mundura irekitzen zaituen leiho txiki horretan bilatzen eta irakurtzen aritu nintzen. Azkenean *helpx.net* izeneko web-orrian aurkitu nituen gustuko hainbat aukera. Laguntza trukaketaren ideiarekin familia, baserri edo ostatuetan laguntzeko aukera ematen zizuten eguneroko jatekoa eta lotako tokiaren truke. Hura aurkituta hiztegia eskuan hasi nintzen mezuak bidali eta bidali Erresuma Batua eta Irlandako txoko askotara. Zein tokitara joateak ez ninduen asko arduratzen, leku guztietan daude harrituta eta sentsazio askoz beteta uzten zaituzten jende eta momentuak.

Egunak pasa eta ezezko asko jaso ondoren *haratx!*, baiezko erantzun bat jaso nuen. Bidaia antolatzen hasteko ordua! Baina ea... nondik erantzun didate? Hainbeste mezuren ondoren ahaztuak nituen herrien izenak eta honetan Oban (Eskozia) jartzen zuen. Ba mapa ireki eta gurutze bat jarri nion. Orain Arano-Oban lotzeko ordua!

Egun osoko bidaiaren ostean, nafar batekin topo

Etetik hasi eta Eskoziako herri txiki horretaraino egun osoko bidaia izan zen. Bilbotik, hegazkinez, goizeko 9etan atera nintzen etxekoei penaz agur esan eta gero, joaneko txartela soilik eskuetan nuela. Etorrerakoa nik erabakitakoan izango zen. Londresen eskala egitea tokatu zitzaidan. Hurrengo hegazkina hartu arte ordu batzuk nituen ez aireportuan bertan amak goizean egindako bokadilo goxoa janez jendeari begira jarri nintzen. Haiei begira, nire baitan galdera bat zebilen bueltaka, hainbeste jende dago atzera eta aurrera, eta hemen jaiotakoak zenbat ote? Azal beltzeko jendea, ez hain beltzekoa, zuriak... Egunak aurrera segitu zuen eta beste hegazkin bat eta autobus



bat hartu ondoren eta egun osoa bidaiari eman eta gero, ilunean zegoen kostaldeko Oban herrira iritsi nintzen 9ak aldera. Hai-zeak hezurretaraino hozten zuen eta larunbata izanagatik oso lasai zegoen herria. Eskuetan neukan zirriborroz jositako paperari begiratu eta ostatua bilatzera joan nintzen. Erraz aurkitu nuen eta han zegoen hurrengo asteetan nire etxea izango zena.

Zein polita zen, ez nuen horrelakoa imajinatu ere egiten. Egongela hura argazkiz, marrazkiz eta kolorez beteta zegoen. Beheko suaz berotuta zegoen, sofa pila bat zeuzkan eta gerora hainbeste jokatu nuen billar mahaia. Sutondoan

zeuden nire kidetsuko gazte mordoxka bat eta beraien aurrean nire burua aurkeztu eta beraiek banan-banan gauza bera egin zuten. Denetarik zegoen, australiarrak, errumaniarrak, ingelesa, estatu batuarak, suitzarra eta beste nafar bat! Lizarrako mutil bat zegoen, Sergio, ni baino bi aste lehenago iritsi zena eta bera ere ingelesa ikasteko asmoarekin. Harengan aurkitu nuen nik izugarritzko laguntza. Segituan azaldu zidan nola zihoan dena eta bere bertako esperientzia. Baina hori bai, hasieratik hitzarmen bat egin genuen. Ingelesa ikastera joan ginenez biok, elkarrekin ere hala egin behar genuela erabaki genuen,



ez bagenuen horrela egiten akats bakoitzeko garagardo bana zor izango genion elkarri. Bera atera zen irabazten baina bigarren astetik aurrera eztabaidatzeko ere ingelesa erabiltzen genuen gure ondoan zegoen jende guztiaren harriturako.

Leku desberdinetako jendea ezagutuz

Ostatuan lana egitea oso erraza izan zen, ostatuaren mantenuaz arduratzen ginen ni bezalako 15 bat gazte eta beti gauza desberdinak eginarazten saiatzen ziren. Denboraz 2-3 ordu bitarteko lana izaten zen, oso eramangarria. Hau egin ondoren 16:30ean iluntzen zuen egunaz gozatzeko aukera izaten genuen. Herrian zehar ibiltzea ohikoa genuen, baina gehien egiten genuena dudarik gabe billarrean jokatzeko izaten zen. Sekula ibili gabea nintzen baina gustu handia hartu nion, herriko txapelketan ere parte hartu nuen gure ostatu taldearekin, denak galduaz, baina tira!

Jendearekin sortutako harremana ere oso polita izan zen. Gehienbat ostatuan laguntzen ari ginenon artean. Elkarrekin bazkaltzen genuen eta elkarrekin egiten

genituen parrandak. Bakarrik bidaiatuz zebiltzan denak eta bakardadean ez egoteko jendearekin segituan erabat irekitzen ginen. Bakoitzak bere herriaz hitz egiten zuen eta nik ere bai, noski! Zein nintzen eta nondik nentorren azaltzeko erretorikarik luzeenetarikoa nirea izaten zen baina jendeak arretaz entzuten ninduen, harrituta gure kultura eta lurraldearekiko azaltzen nuen maitasunagatik.

Jendea munduko txoko desberdinetakoa izanik jateko ohiturak eta jaki desberdinak ugariak ziren. Gogoan dut suitzarrak egin zigun bazkari arraro bat. Talo-krepe moduko bat zen eta biribildua zegoen. Barruan babarrunak eta barazkiak zeuzkan sartuta. Alemaniar batek beste batean tarta moduko bat egin zigun. Baina ez zen postrerako, jakia zen. Hostopilez (hojaldrez) eginda zegoen baina gero barazkiak zeuzkan barruan, harrigarria baina ez zitzaidan asko gustatu. Gure eskaintza patata tortila izan zen eta ez zuen hutsik egin, denek txoratzen jan zuten.

Bertako tokiez zer esango dut ba! Mendiak berde-berdeak ziren, soilak gehienak baina zoragarriak. Haizeak ez zuen uzten

zuhaitz bat bera ere hazten. Altuera al-daketa handiak zeuzkaten eta inguruan irla txiki asko zeuden. Oso turistikoak ziren irlak, arrantzale munduan sarrarazten ninduten erabat. Kolore desberdinetako etxeak ere aurkitu nituen batean. Historia aldetik ere aberatsa zen, garai bateko gazteluak ikusi nituen eta toki oso isolatuak zeuden babeserako puntuak ere bai. Hango animaliak ere kuriosoak ziren. Adibidez, behiak ikaragarri zimazuak dira, buruan begiak tapatzerainoko ilea daukate eta gorputz guztian 5-10 cm luzeko ilea ere bai. Bertako hotzak eragindako arraza, pentsatzen dut. Ardiak ere nahiko hankamotzak dira eta gorputz txikikoak.

Noizbait etxerako buelta ere etorri behar zen eta eguberriak gaineratu zitzaizkidanean etxeko goxotasunera itzuli behar nuela sentitu nuen. Beraz, hegazkin txartela erosi eta bueltako bidea egin nuen malko batzuk eta lagunak bertan utzita. Elurtzen hasiak ziren paisaiak utzi eta Bilbora iritsi nintzen etxekoak nire zain zeudela. Ez nintzen isildu ere egin etxerako bidean. Zenbat bizipen eta emozio...

Good bye Oban!!!! ● Josu Sarobe

Bengoetxeatarrak



Bengoetxeatarrak, 1963. Osaba eta hiru ilobak ikus ditzakegu. Ezkerretik eskuinera, Cornelio (Bengoetxea I), Peio (Bengoetxea II), Manolo (Bengoetxea IV) eta Patxi (Bengoetxea III).

Aranok badu berezitasun bat, zelaia den gauza bakarra dagoela bertan eta hura frontoia dela. Frontoi hone-tan ezin da jakin zenbat haur, gazte eta ez hain gaztek jokatu izan duten inoiz pilotan. Ezin da jakin, garai batean zenbat itxaron behar izango zuten txanda hartzeko jokatu aurretik edo zenbateko apustuak egiten zi-ren. Frontoia txikia da, teilaturik gabea, bai-na entretenigarri gutxi dagoen herri batean, sekulako garrantzia izan zuen, izan du eta izango du. Horma zahar hauek badute ber-ren historia, zalan-tza izpirik gabe.

Horren erakusgarri dira ondoren aurkez-ten dizuegun familia honetako partaideak. Frontoia maite eta bertan izerdi asko bota zuten Olaso etxean jaio eta ondoren Pla-zan bizi izan ziren Bengoetxeatarrek. Fami-li honetako partaide askok Aranoren izena mapan kokatzen lagundu izan dute, beren lorpen garrantzitsuei esker.

Dinastia honen gorabeherak, Plazako Antoniori-en eta Lurdesen eskutik jakin di-tugu, beraiek izan baititugu bide lagun ar-tikulu honetan agertzen diren datuak eta argazkiak eskuratzeko orduan.

Gure ibilbidea Olaso etxean hasiko du-gu. Bertan jaio zen **Cornelio Bengoetxea Alzuri (Bengoetxea I)**, 1904ko irailaren 16an. Erremonte jokoan hogeitabost urte zituela, 1929an, eman zituen lehen pausoak

eta afizionatu mailako txapelketetan parte hartu izan zuen. Bera izan zen saga hone-tako lehen erremontista. Pasa den mendeko 30. hamarkadan, Madril-en Jai-Alain jokatu zuen erremontean. Honek sartuko zien afi-zioa bere hiru ilobei, lehenbizi, eta ondo-rengoei ere bai, ziurrenik.

Cornelioren arreba **M^a Josefa Bengoe-txea, Antonio Egurretxearekin** ezkondu zen eta horiek "Plaza" etxean, garai hartako taberna eta ostatuan jarri ziren bizitzen. M^a Joxepa bertako sukaldaria izan zen urte askoz eta sukaldari oso onaren fama izaten omen zuen. Honela dio Anttonek. —*"Ber-raneantiak ere etortzen zian, lotako hoge-i bat launentzat eo tokiya izaten baitzen ta hala saten tziyuen: Usted señora, ¡con los clavos también haría una buena tortilla!*— Sukalde lanetan Juana Mari bere ahizpak ere laguntzen omen zion. Juana Mari leku askotan sukaldari aritua izaten omen zen, esaterako Fagollagan. Haien janari goxoare-kin hazi izango ziren, bada, gure hurrengo protagonistak, Antonio eta M^a Joxeparen seme-alabak, alegia.

Seme zaharrena **Peio (Bengoetxea II)**, 1923ko urtarrilaren 30ean, negu gorrian jaio zen. Amaren abizenarekin hasi zen pilotan jokatzeko osabaren afizioari jarraiki. Esan de-zakegu hau izan zela Aranoar erremontis-ta ospetsuena eta atzelari bikaina izan zela

diote. Hoge-i urterekin, 1943an, Donostiako "Urumea"n debutatu zuen profesionaletan eta Madrilgo "Recoletos" eta Iruñeko "Eus-kal-Jai"en jokatu zuen 1963. urtera arte. Bi hamarkada horietan, erremonteko Mundu-ko azpi-txapelduna izatera iritsi zen bakarka eta beste hainbat jaialdiren artean, 1958an Akitaniako Hossegor hirian jokatu zen mun-duko txapelketako irekieran ere parte hartu zuen. Antoniok dio: *"Peiok urte batian, San Ferminetako torneuan zortzi partidutatik zortziyak irabazi izan zittun bikoteka, erra da hoi eh!", zortzitik zortzi!*

Peio Luzia Aranbururekin ezkondu zen eta Donostian, San Bartolome kalean, "Bar Pello" delakoa jarri zuten. Bi seme-alaba izan zituzten, Antton eta M^a Jose eta orain dela gutxi, aurtengo ekainaren 7an, hil be-rria zaigu, 89 urterekin.

Peioren ondoren beste bi senide izan omen zituzten Plazakoek, baina txiki-txikiak zirela hilak ziren biak, Martin eta M^a Teresa izan ziren horiek.

Laugarren senidea **Milagros** izan zen. 1930. urtean jaio zen, uztailaren 11n. Mila-grosek ere gaztetan bere anaiak zirela me-dio, zeregin ugari izan zituen. Haien artean, anaien arropak garbitzea egokitzen omen zitzaion. Zapatak behintzat oso zailak izaten omen ziren garbitzen, hala dio bere alaba Lurdesek: *"filan jarri eta denak garbitzen*

aitzen men tzen. Osaba Peion zapatak izaten omen tzian zallenak, bi kolorekuk men tzian, txurik ta beltzak ta lan geyo maten omen ziyoten”.

Milagros guztiontzat ezaguna izan zen, bera izan baitzen gero Plazara ezkondu zena eta bertan familia sortu zuena. Anaiak ezkondu zirenean ere, ez zitzaizkion lan haiek bukatu Milagrosi. Bere senarra izan zena, Maisueneko-Bordako **Santos Ansa** ere pilotan afizionatu mailan asko jokatu-takoa izan zen. Santosek atzelari moduan jokatzen zuen eta aurrelari modura “Carre-ra” izaten omen zuen lagun. Bere koinatu Patxiarekin ere ibili omen zen. Hamaika bider Arano-Goizueta pilota partida jokatu izango zuten, dudarik gabe.

Santos 1924ko azaroaren 1ean jaio eta 1989ko ekainaren 25ean hil zen mendi buelta bat egiten ari zela. Denok gogoratzen gara heriotza horretaz, baita orduan txiki ginenok ere, halaxeko ezustekoa izan baitzen familiakoen eta herritarren artean.

Milagros eta Santosek bost seme-alaba izan zituzten: Antton, Joxe Mari, txikitan zendua honako hau, Lurdes, Jabier eta Eba. Zaharrenak, **Antton Ansak**, bere aita eta bere osaben pausoak jarraitu zituen. 1958ko urtarrilaren 30ean jaio zen eta 23 urtetatik 28tara, soldaduskatik etorrira, Orbegozo fabrika lan egiten zuenean, profesional bezala jokatu zuen Galarretan eta Iruñeko Euskal-Jaien. Gerora zeregin horiek utzi eta zerbeza fabrika jarraitu zuen lanean.

Lurdesen semea ere aipatu gabe ezingo dugu utzi. **Jon Ander Elorza**, izan ere, txiki txikitatik ikusi izan dugu pilotan jokatzen. Arano-Goizueta pilota partidetan parte hartu izan du sarri eta lehengo urtean eskuzko pilota utzi eta erremontean jokatzen hasia dugu. Gaur egun hemeretzi urte ditu. Ez da afizio makala familia honetan dutena, ez!

Bosgarren senidearekin jarraituko dugu. **Manolo (Bengoetxea IV)**, 1932ko uztailaren 11n jaio zen eta gaztetan zalamerao eta oso mugitua zela esaten du Anttonek. Bere anaia gazteagoak baino urte batzuk beranduago debutatu zuen. Garai hartako kontuak hala izaki, erremontista bezala debutatu zuen arren, soldaduska egitera oso urruti behartu zuten. “El Aiun” Saharar herritarren artean egon zen. Orduan utzi omen zion Manolok jokatzeari. M^a Joxepa bere amari sekulako pena eman omen zion semea hain urruti joan behar horrek, normala den bezala.



Patxi, Bengoetxea III 1958.

Handik etorritakoan, Zizurkilgo Elbira Galarzarekin ezkondu eta bi seme alaba izan zituzten, Antton eta M^a Jose. Manolo, Hernaniko “Garayar” enpresan autobus txoferra izan zen eta oso gazterik hil zen, 49 urte besterik ez zituela, 1981eko uztailaren 17an.

Seigarrena, **Patxi, (Bengoetxea III)** 1934ko abenduaren 30ean jaio zen. Eskuz pilotari fina izan zen hau ere. Afizionatu mailan aritu zen eta inoiz ez zuen profesionaletarako salto egin, baina, aranoar batek lortutako titulutik handienetakoa lortu zuen hala ere. Biarritzeko frontoian, 1958ko irailaren 21ean trinketeko afizionatu mailako MUNDUKO TXAPELDUN izan zen, bakarka, ezusteko handia emanez. Antoniok honela dio: “Rezibimendu haundiya in omen ziyoten ordun Aranon, transformadoretik banderak jarri ta herrin pankarta haundi bat. Nik enun ikusi miño hala san tziaten”. Antonio kanpoan lanean ari zen garai hartan.

Garai hartako “GUIA” aldizkarian datorren bezala, ongi jokatzeoko gogo handiz joan zela zioen, baina, Uruguaiako “Andruco” txapelkunaren kontra ez omen zuen uste irabaziko zuenik. Honen harira, Haranbilletek profesional bezala ipar Euskal Herrian geratzeko eskatu zion. Partida asko jokatu omen zituen bertan, baina lehen esan bezala, azkenean ez zuen profesional mailara salto egin.

Aldizkari berean, Jesus Balda jokalaria antiguotarrak honela zioen beragatik: “bere garaipena oso justua izan da, aurkariak errez eta garbi menderatu dituelako. Bere bolea izugarria izan da aurkariak gehien

izorratu dituen. Trinketea 10 tanto saketik ateratzea oso erraza da, baina Patxiri ez zizkieten 5 tanto besterik sartu, sakeei bolez sartzen zietelako.

Patxi Uruguain ere ibili zela uste dute, baina ez dira ziur gogoratzen. Garai hartako Uruguaiako aldizkari bat aurkitu dute etxean eta. Gerora, Pilar Etxarriarekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituzten: Patxi, Mirari eta Iñaki. Taxi gidaria izan zen eta hau ere gazte xamar hil zen 52 urterekin, 1986ko urtarrilaren 25ean.

Familia hau aztertzeoko garaian, ezin dugu ahaztu gaur egun bizirik dagoen bakarra. Bera **Antonio Ezeiza Urruzmendi** da. 1936ko maiatzaren 23an jaioetakoa da, Antiguon bizi zen eta aitarik gabe gelditu zen hiru urte zituela. Hamar senide zirenez, bere atautxi Antonioren gana ekarri zuten Plazara eta bertan zazpigarren senide bilakatu zen.

Garai hartako kontuak kontatu dizkiugu. “Olason edukitzen genittun animalik ta atautxiari bertan laguntzen niyon, Santos ta Anttonekin bate ta, Joxe lehengusuk’e asko launtzen tziun animalin lanak itten. 4-5 behi izango zian, ehun bat ardi, txerrik, olluk ta gañe-gañekuk. Anttoniok pilotarako afizioa izan zuen eta herriz herri jokatu omen zuen. Baita behin baino gehiagotan Aranoren izenean ere, urteroko Goizueta-aren aurkako partidua horretan. Lanera joan zenekoa ere gogoratu digu: “Mariezkurrena enpresa Arano torri zen mendin lana ingo zun jendian billa ta ni’re Frantzira jun nitzan. Autobusian hogeitabost bat laun jun ginan hemendik ta denak nearrez geldittu zian. Frantzin neola irabazi zun Patxik Mundiala ta rezibimentuan’e ezin izan nitzan eon. Pena da miño! Alpetan aittu ginan lania ta zortzi urte pasa nittun han. 24 urte nittula Afrika jun nitzan soldau, Ceutan in nun nik’e ta geo urte t’erdi eo Orbegozon lan in nun.

Anttonio M^a Esther Legarretarekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituzten: Jesus, Gurutze eta Gorka. Bi mutil hauek ere pilotan badute afizioa dudarik gabe, ikusi izan ditugu hemen eta inguruko herrietan ere eskuz txapelketaren batean parte hartzen eta. Gaur egun 76 urte ditu.

Zera esan dezakegu bada, familia hau ezagututa, frontoiaren ondoan, edo hobeto esanda, frontoian bertan bizitze horrek, odolean ere eragiten duela, ez da hala?

● **Aranxa Ansa**

Bizitzaren bi paretak



Amona.



Amona.



Mañel eta Ainhoa.

Eduardo Galeano idazle uruguaitarrak *Imaginazioa* titulua duen testu batean, gutxi gorabehera haxe kontatzen zuen. Ezagutzen ez zuen herri urrun batera iristean, zuhaitz handi baten itzalean koaderno eta margoak atera eta margotzen hasi zen. Kanpotar gutxi ezagutzen dituen herritxo horietako bat zen, eta ume ausartena curiositateari ezin eutsirik bere ondora gerturatu zitzaion. Idazleak, ekintza horrek eduki zitzakeen ondorioak neurtu gabe, umeari eskuan animaliatxo bat margotu zion. Imajina dezakezue momentu batean nolako ume zerrenda bildu zen bere marrazkiaren zain. Eta tira, denak ala inor ez. Azkeneko haurrak eskua luzatu zionean, eta automatikoki zerbait marraztera zihoanean, ohartu zen mutiko hau ez

zeturrela marrazki baten bila baizik eta berak marraztutako erlojutxo bat erakustera:

– Zer, ondo al dabil zure erlojua? - galdetu zion Galeanok-.

– Tira, zertxobait atzeratzen da - erantzun zion artista txikiak.

Eduardo Galeanok ipuinak ere idazten ditu. Hauetako batean lapur batek etxe batetik kutxa handi bat ohostu zuela kontatzen du. Kutxa lotzen zuen katea haustean soinurik ez egiteagatik, kutxa ireki gabe eraman zuen. Pisua ikaragarria izan arren barruan altxor bat egotearen pentsamenduak lana errazten zion. Etxera iritsi eta kutxa irekitzean arrazoi zuela ikusi zuen, altxor baten aurrean zegoela. Baina ez zen berak espero zuena. Maitasun gutunak ziren, bere data zekarten maitasun gutunak. Hasieran gutunak zakarretara botatzea pentsatu zuen, baina batzuetan arimatik datorkigun indar eder horregatik edo erabaki bat hartu zuen. Astero gutun bat bidaliko zion kutxaren jabeari.

Lehen gutuna jasotzean ohartu zen kutxa falta zitzaiola, egia esan kutxa eta gutunak ahaztuak zituen, baina horren-

bestekoa izan zen piztu zitzaion emozio eta bizipoza, ezinezkoa zitekeela sinestea gutun jario hau lapur baten lana zenik. Aingeru eta mirarietan sinesten hasi zen.

Eduardo Galeanok ez dakit zer pentsatuko duen "zer mundu uzten diegu gure semeei" entzuten duenean. Badakit badakiela gauzak ez direla beti diruditenak, baina ez dakit zer pentsatzen duen behin eta berriz entzuten den desilusio honi buruz. Nik pentsatzen dut, alde batetik, nire semeari uzten zaion mundua nirea bera dela, eta niri ere urte pila geratzen zaizkidala bizitzeko. Eta, bestetik, uste dut garai guztiek eduki dutela bere zera. Zer mundu nahiago dugu? Non eta noiz nahiko genuke bizi? 1512an Amairuren? 1936an? 37, 38, 39an? Hiroshiman? Fukushiman?

Nik argi dut hemen, orain, Mañel eta Ainhoarekin, familiarekin, lagunekin eta aranoar eta bertatik pasatzen diren guztiekin bizi nahi dudala. Eta Obamak Estatu Batuetako presidente izan nahi badu, nik nahiago dut Mañelen lehen "sotamanoak" Aranoko estalitako frontoian ikustea. ● **JOSU SARobe**

Unamuno-Leuneta eta Azketa mendiak, Aranotik abiatuta

- Ibilaldiaren iraupena: 3 h, 15 min. Joan-etorria
- Igo beharreko altuera: 465 m.
- Ibilbidearen luzera: 14,5 km. Joan-etorria
- Zailtasuna: erraza

Adarra-Mandoegi mendilerroan barna doan ibilbide hau Nafarroan hasten da, baina Etzala eta Azketa mendiak Gipuzkoan daude, eta Unamuno bien arteko mugan.



Errekalkoko lepoa.



Unamunoko tontorra.



Mandoegi.

Ibilbidea:

00.00. Arano (440 m). Aranon hasiko gara Unamuno-Leuneta eta Azketa mendietara igo-tzen. Herriaren bukaeraraino errepidez joango gara eta, hilerriaren parean, errepidea harriztatu-tuko pista bihurtzen da.

00.15 h. Bidegurutzean, eskuinera (500 m). **San Rokeko ermitatik** pasa eta minutu batzuk geroago bidegurutze batera iritsiko gara. Gure eskuineko (SW) bidea hartuko dugu. Txarran-txaren paretik joango gara, itsasoaren ikuspegi ederrak lagunduta.

Matitxolako borden ondotik pasako gara. Bidea eroso da, ez dauka ia aldaparik.

00.45 h. Errekalkoko lepoa (655 m). Errekalkoko lepoko informazio-zutoinek bertan megali-to-gune garrantzitsua dagoela adierazten digute. Harrespilez josita dago inguru eder hau, eta bertan dugu beste bidegurutze bat.

Hemendik ekingo diogu Unamuno-Leuneta mendiaren igoerari, aurrean dugun belarrezko

aldapa gogorrean gora abiatuta, txantxarraren eta ehiza-postuen ilararen paraleloan.

01.15 h. Unamuno-Leunetako tontorra (875 m). Mendi honek bi tontor dauzka, elkarren ondo-ondoan daudenak, jaitsiera txiki batek banatuta. Aurrena Leunetara igoko gara eta ondoren, eskuin aldera (NW) hartuta eta pinudia gure ezkerreko aldean dugula, Unamunoko tontorrera iritsiko gara.

Azketa mendira abiatuko gara orain. Baxoa gure ezkerrean dugula, minutu gutxiaren buruan pinudia bitan zatitzen duen suebaki batera iritsiko gara.

Suebakian behera jaitsiko gara. 90 graduko bira ezkerrera, eta suebakitik jaitsiko gara. Suebakian gora eta behera zenbait aldiz egin ondoren Azketako gailurrera iritsiko gara, bestelako biderik hartu gabe. **Etzala menditik** (815 m) pasako gara —goialdean harrespil bat dago—, Azketako tontorrera iritsi baino lehen.

01.50 h. Azketako tontorra (830 m). Azketako tontorrera eramango gaituen azkeneko aldapa gogorra da.

Azketatik itsasoa ikus daiteke, baita Ernio, Adarra, Unamuno... ere.

Itzulera. Suebakitik itzul gaitzek eta lehendabiziko lepoan **ezkerreko (E) pista** hartu, toki horretan suebakia gure eskuinean utzita.

Hurrengo **bidegurutzean eskuineko bidea** hartuko dugu, eta igoera labur baten ondoren garbiune batera iritsiko gara.

02.15 h. Garbiunea. Bidegurutze batean agertuko gara, eta eskuin aldera joko dugu, abereen joan-etorria galarazteko pasabidea igaroz (SE).

Errekalkoko lepora iritsi baino lehen pagadi ikusgarria zeharkatuko dugu, eta igoerako bide beretik jarraituko dugu, alderantzizko norabidean.

03.15 h. Arano. Bukaera.

Bakailoa pil-pilean eta gazta tarta

Lourdes Legarreta sukaldari aranorrek ekarri dizkigu errezeta hauek. Hasteko, bakailoa pil-pilean eta postrerako, berriz, gazta tarta goxo-goxoa. Mantala jantzi eta sukaldean hasi beharko dugu, beraz. On egin dizuela!



Gazta tarta

(TARALETA HAUNDIA)

OSAGIAIAK:

- 20 gaileta
- 200 gr mantekila
- 500 ml esnegain
- 400 gr philadelphia gazta
- 100 ml esne
- 100 gr azukre
- 4 gelatina orri
- Marrubizko edo arandanozko mermelada

PRESTAKETA:

Hasteko, gailetak birrindu eta mantekila urtuakin nasi eta moldian fonduan jarri txukun txukun. Labian sartu 5 minutuz 180 °tan.

Ontzi batian, gelatina orrik jarri ur hotzian hidratatzen.

Kazo batian, esnia eta azukria jarri su bajun eta hau berua donian gelatina sartu bertan urtu daitezen.

Ontzi batian nata altxa erdino, geo gazta erantsi eta ongi nasi (grumoik utzi gabe) eta azkenik kazun berotu gun nasketa bota eta dena ongi nahastu.

Krema hau gailetan ganian jarri eta hozgailun eduki 4 orduz gutxinez.

Jan bihar denian mermelada zabaldu ganian eta listo!



Bakailua pil-pilean

(4 lagunentzat)

OSAGIAIAK:

- 4 puska bakailu gezatuk eta lehorrak
- Oliba oliua 1º
- 8 batzuri ale
- Kaienako pipermin bat

PRESTAKETA:

Kazula batian jarri bakailua (azalaz gora), batzurik, piperminia eta oliua bota, bakailuk tapatzeko aina. Sutan jarri eta batzurik koloria hartzen hastian, sua jeitxi eta xuabe-xuabe in bakailua (20-30 minutu, puskan lodieran arabera).

Sutik kazula ate eta epeltzen utzi, bakailuak bere ura solta dezan, gero olio pixkat kendu, seguruna ez du dena beharko ta.

Berriz sutan jarri eta kazulai eragin saltsa loditu arte, bihar izanez gero, sobran don oliua bota pixkanaka, beti kazulai eraginez.

Kazulai eragin nahi ez dionak, bakailua atera kazulatik eta olio pixkat ere bai, eta pasadore batekin olio astindu ara ta ona, saltsa ligatu arte. Saltsa loditzian, bakailua sartu berriz eta ongi berotu.

Xelebrekeriak

ARANON GERTATUA:

Behin aranoar batek be mandua kargatu du ba goraino ta han dijuu, nekiai launtzeko, manduai isatsa hartuta, honen atzetik. Isatsa re tirante nonbatt ta auzoko batzuk ikusi dutenian, zerbatt esan bihar ta:

– Hi! Zer hua, ordia, mandua hola kargatua ta gañe hi atzetik tirian!?

Ta manduan atzetik bestiak:

– Hik zer dakik atzetik bultzian banua re!?

SOLUZIOAK: Etzabal, Ontzorrotz, Isilets, Iturribeltza, Ostakuts, Lizardl, Latxe, Artzulo, Burnin, Arregl, Amalegl

Letra zopa

Aranon Urumea erreka ez da herri erditik pasatzen baina badiugu erreka asko gure bazterretan. Baietz hemen 11 aurkitu!

k	o	f	a	p	i	h	q	d	e	m	l	z	v
t	j	x	y	c	b	r	i	n	u	s	a	e	g
n	i	r	h	n	v	g	u	x	j	r	x	o	l
i	g	z	k	c	e	i	f	m	t	t	b	e	i
n	e	l	w	l	a	u	h	z	a	v	f	n	z
r	r	m	a	d	r	i	u	l	q	a	e	p	a
u	r	m	b	j	h	l	d	m	r	s	u	x	r
b	a	c	f	i	o	y	p	v	b	t	m	a	d
h	a	z	t	l	e	b	i	r	r	u	t	i	i
l	i	s	i	l	e	t	s	z	v	k	r	n	s
l	e	a	m	f	i	q	h	g	k	a	d	t	w
b	o	o	n	t	z	o	r	r	o	t	z	e	i
l	a	b	a	z	t	e	a	d	g	s	s	n	q
d	c	i	w	t	f	j	v	m	q	o	l	z	u

7 aldeak aurkitu

Ea 7 aldeak aurkitzen dituzun.





Gure bazterrak

HERRIA: talde edo herri jakin bat bizi den lurraldea bera; beste ezaugarriren batek mugatzen duen herrialde edo lurraldea.

Hauxe omen da herria hiztegi hotz baten arabera. Hori ote da dena? Denok dakigu ezetz. Herria sentimenduz betetako lekua da. Ongi zioen Mikel Laboak "maite ditut, maite gure bazterrak...". Eta are hobeto bukatu zuten esaldia Elortzak eta Iturriagak "... bizi dituztenei eskerrak!".

Miaxiria hau eskuetan duen guztiak eta nola ez, miaxiria, hitzez, esaldiz, irudiz eta sentimenduz bete dugun guztiok maite dugu Arano. Zoriak, zori onak, zorionez munduko bazter honetara ekarri gaitu eta harro diogu aranoarrak garela. Aranon jaio ginela, Aranora etorri ginela, Aranon bizi garela, Aranon bizitu ginela... eta horregatik:

"Maite ditut maite gure bazterrak, bizi dituztenei eskerrak!"